

## BATXILERGOA

GALDERA	ERANTZUNA
Tutoretza derrigorrez eskeintzekoa?	<i>BAI. Luzapena 23-24 ikasturterako.</i>
Erlijioa egiten ez dutenek Proiektua egin behar dute?	<i>BAI.</i>
Komunitateari Zuzendutako Proiektuak	<i>Erlijioa ikasten duen ikasle bakar bat ere ez badago, ez da nahitaezkoa izango proiektu bat egitea. Kalifikaziorik ez</i>
Proiektua tutoreak eman behar du?	<i>BAI.</i>
Batxilergoko 1.Mailan har daitezke 2. Mailako aukerakoak?	<i>EZ</i>
Jarraipenik badaukate aukerako ikasgaiek?	<i>Hizkuntzek BAI; IKT BAI;...I eta II dagoenena jarraipena daukate eta ezin da II hartu I hartu gabe.</i>
Batxilergo Orokorra derrigorrez eskeini behar da?	<i>EZ</i>
Modalitate berriak aurten ez badira eskatzen hurrengo ikasturtean eskatu ahalko dira?	<i>BAI</i>
Ikastetxeak hautazkoen eskaintza konfiguratu ahal izango du?	<p><i>Sailak ikasturte desberdinetarako jakintzagaien proposamena egin du, eta proposatutako jakintzagaien curriculumak garatu du.</i></p> <p><i>Hautazko jakintzagien eskaintza hori ez dago itxita. Ikastetxeek, baimena jaso ondoren, aukerako jakintzagaiak eskaini ahal izango dituzte.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>22-23 ikasturterako,</b> ikastetxeek gaur egun baimenduta dituzten jakintzagaiak baimenduta izaten jarraituko dituzte.</li> <li>• <b>23-24 ikasturterako,</b> ikastetxeak eskaini nahi dituen ikasgai guztien baimena eskatu beharko du, baita gaur egun baimenduta dituenak ere.</li> </ul>
Hautazko jakintzagai gisa eskaini ahal izango da ikastetxean modalitateko jakintzagai bat ordu-karga desberdinarekin?	<p><i>EZ</i></p> <p><i>Jakintzagai bera bada, curriculum bera eta ordu-karga bera izan beharko ditu. Hala ez balitz, ikasleen artean diskriminazioa sortuko litzateke. Baldin eta ez badago ikastetxean, modalitateko jakintzagai gisa ikasten duen talderik, ordu-karga desberdina eduki ahalko du gainerako modalitateko jakintzagaiekin alderatuta, gutxieneko ordutegiak beteta.</i></p>

ZRRBORCA